

2017ko URRIAREN 16ko 4/17 ZENBAKIKO EZOHIKO BILKURAN HARTUTAKO ERABAKIEN LABURPENA

AKTA

1.- 2017KO IRAILAREN 28AN EGINIKO 5/17 ZENBAKIKO OHIKO BILKURAKO AKTA IRAKURTZEA ETA, HALA BADAGOKIO, ONESTEA.

Berresteko aurreko saioko aktaren zirriborroa Osoko Bilkura honen deialdia baino lehenago bidali denez, irakurritzat jo da.

[...]

Zuzenketarik gabe berretsi da irailaren 28ko 5/17 zenbakiko ohiko bilkuraren akta.

EBAZPENAK.

2.- HASIERA BATEAN ONESTEA, HALA BADAGOKIO, ONDASUN HIGIEZINEN GAINEKO ZERGA ARAUTZEN DUEN 2. ORDENANTZA FISKALA ALDATZEA.

Urriaren 16ko 3/17 Ezohiko Kontuen Batzorde Berezian, Batzordeko kideek aldeko txostena egin dute (AEIren 2 eta EAJ-PNVren 1), eta Osoko Bilkurak hasiera batean onestea proposatu dute gehiengo osoz.

[...]

Proposamena bozkatu egin da:

Aldeko botoak: 7; AEIren 5 eta EAJ-PNVren 2.

Kontrako botoak: Bilduren 4.

Abstentzioak: bat ere ez.

Korporazioa osatzen duten kideen legezko kopuruaren gehiengo osoak honako hau erabaki du:

Hasiera batean onestea Ondasun Higiezinaren gaineko Zerga arautzen duen 2. Ordenantza Fiskalaren zerga tasa aldatzea, ondasun mota guztietarako; kuotaren gutxieneko zenbatekoa 6 eurokoa izango da, honako taula honen arabera:

	ONARTUTAKO KARGA TASA
OROKORRA	0,1845
INDUSTRIA-ERABILERA (I)	0,5783
MERKATARITZA-ERABILERA (C)	0,205
ETXEBIZITZA ERABILERA (V) ETA BESTE ERABILERA BATZUK (Y)	0,1742
LANDA IZAERA	0,073
EZAUGARRI BEREZIKO ONDASUN HIGIEZINAK	1,33

GUTXIENEOA	6 €
------------	-----

Toki-araubidearen oinarriak onartzen dituen apirilaren 2ko 7/85 Legearen 49. artikuluan eta 9/2005 Foru Arauaren 16. artikuluan xedatutakoari jarraikiz, aldaketa behin-behinean onesteko erabakia jendaurrean jarriko da hogeita hamar egunez, eta jendaurrean jartzeko aldia amaitu ondoren eta behin betiko erabakia hartu ondoren, Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuko da.

Behin betiko onetsitako aldaketaren testu osoa Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu ondoren jarriko da indarrean.

3.- HASIERA BATEAN ONESTEA, HALA BADAGOKIO, TRAKZIO MEKANIKOKO IBILGAILUEN GAINEKO ZERGA ARAUTZEN DUEN 3. ORDENANTZA FISKALA ALDATZEA.

Urriaren 16ko 3/17 Ezohiko Kontuen Batzorde Berezian, Bilduko ordezkariaren aurkako txostenarekin eta Batzordeko gainerako kideen aldeko txostenarekin, aldeko txostena egin da, eta Osoko Bilkurak aldaketa hasiera batean onestea proposatu dute gehiengo osoz.

[...]

Proposamena bozkatu egin da:

Aldeko botoak: 7; AEIren 5 eta EAJ-PNVren 2.

Kontrako botoak: Bilduren 4.

Abstentzioak: bat ere ez.

Korporazioa osatzen duten kideen legezko kopuruaren gehiengo osoak honako hau erabaki du:

Hasiera batean onestea Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko Zergaren zerga-kuotak aldatzea ibilgailu guztietarako, zerga-zaldien arabera sailkatuta, honako taula honen arabera:

<u>Ibilgailuaren potentzia eta mota</u>	<u>ONARTUTAKO ZERGA-KUOTA</u>
A) TURISMOAK	
<u>8 zerga-zaldi baino gutxiago</u>	19,00
<u>8 eta 11,99 zerga-zaldi bitartean</u>	51,50
<u>12 eta 13,99 zerga-zaldi bitartean</u>	91,75
<u>14 eta 15,99 zerga-zaldi bitartean</u>	135,40
<u>16 eta 19,99 zerga-zaldi bitartean</u>	174,95
<u>20 zerga-zaldi baino gehiago</u>	213,10
-	
B) AUTOBUSAK	
<u>21 jarlektatik behera</u>	127,70

<u>21 eta 50 jarleku bitartean</u>	182,55
<u>50 jarlekuetik gora</u>	228,40
-	
C) KAMIOIAK	
<u>1.000 kg-tik beherako zama erabilgarria</u>	64,80
<u>1.000 - 2.999 kg bitarteko zama erabilgarria</u>	127,30
<u>2.999 - 9.999 kg bitarteko zama erabilgarria</u>	182,00
<u>9.999 kg-tik gorako zama erabilgarria</u>	227,75
-	
D) TRAKTOREAK	
<u>16 zerga-zaldi baino gutxiago</u>	28,00
<u>16 eta 24,99 zerga-zaldi bitartean</u>	42,45
<u>25 zerga-zaldi baino gehiago</u>	127,30
-	
E) TRAKZIO MEKANIKOKO IBILGAILUEK ERAMANDAKO ATOIAK ETA ERDIATOIAK	
<u>1.000 kg-tik beherako zama erabilgarria</u>	28,00
<u>1.000 - 2.999 kg bitarteko zama erabilgarria</u>	42,45
<u>2.999 kg-tik gorako zama erabilgarria</u>	127,30
-	
F) / BESTE IBILGAILU BATZUK	
<u>Ziklomotoreak</u>	7,90
<u>125 cc bitarteko motozikletak</u>	7,90
<u>125 cc eta 250 cc bitarteko motozikletak</u>	13,50
<u>250 cc eta 500 cc bitarteko motozikletak</u>	24,70
<u>500 cc eta 1.000 cc bitarteko motozikletak</u>	47,95
<u>1000 cc-tik gorako motozikletak</u>	93,70

Toki-araubidearen oinarriak onartzen dituen apirilaren 2ko 7/85 Legearen 49. artikuluan eta 9/2005 Foru Arauaren 16. artikuluan xedatutakoari jarraikiz, aldaketa behin-behinean onesteko erabakia jendaurrean jarriko da hogeita hamar egunez, eta jendaurrean jartzeko aldia amaitu ondoren eta behin betiko erabakia onartu ondoren, testu osoa Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuko da.

Behin betiko onetsitako aldaketaren testu osoa Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu ondoren jarriko da indarrean.

4.- HASIERA BATEAN ONESTEA, BIDEZKOA BADA, INSTALAZIOEN, ERAIKUNTZEN ETA OBREN GAINEKO ZERGA ARAUTZEN DUEN 5. ORDENANTZA FISKALA ALDATZEA.

Urriaren 16ko 3/17 Ezohiko Kontuen Batzorde Berezian, Instalazioen, Eraikuntzen eta Obren gaineko Zergaren gutxieneko zerga-kuota aldatzeari buruzko José Jaime Villanueva jaunaren (Bilduko ordezkaria) aurkako txostenarekin eta AEIko bi ordezkarien eta EAJ-PNVren ordezkariaren aldeko txostenarekin, Osoko Bilkurak hasiera batean onestea proposatu dute gehiengo osoz.

[...]

Proposamena bozkatu egin da:

Aldeko botoak: 7; AEIren 5 eta EAJ-PNVren 2.

Kontrako botoak: Bilduren 4.

Abstentzioak: bat ere ez.

Korporazioa osatzen duten kideen legezko kopuruaren gehiengo osoak honako hau erabaki du:

Hasiera batean onestea Instalazioen, Eraikuntzen eta Obren gaineko Zergaren gutxienerako zerga-kuota aldatzea; 20 euroan ezarri da.

Toki-araubidearen oinarriak onartzen dituen apirilaren 2ko 7/85 Legearen 49 artikuluan eta 9/2005 Foru Arauaren 16. artikuluan xedatutakoari jarraikiz, aldaketa behin-behinean onesteko erabaki hau jendaurrean jarriko da hogeita hamar egunez, eta jendaurrean jartzeko aldia amaitu ondoren eta behin betiko erabakia onartu ondoren, Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuko da.

Behin betiko onetsitako aldaketaren testu osoa Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu ondoren jarriko da indarrean.

5.- BERRESTEA, BIDEZKOA BADA, IRAILAREN 27KO 612/17 DEKRETUA; HORREN BITARTEZ, SOPUERTA SPORT FUTBOL KLUBERAKO DIRU-LAGUNTZAREN EMAKIDA EBAZTEN DA "2017KO KIROL JARDUEREN PROGRAMA" EGITEKO.

Urriaren 16ko 3/17 Ezohiko Kontuen Batzorde Berezian, berrespenari buruzko José Jaime Villanueva jaunaren (Bilduko ordezkaria) abstentzioarekin eta AEIko bi ordezkariaren eta EAJ-PNVren ordezkariaren aldeko txostenarekin, Osoko Bilkurak berrestearen aldeko txostena egin dute gehiengo osoz.

[...]

Berlaratuek aho batez adostu dute irailaren 27ko 612/17 Dekretua berrestea; horren bitartez, Sopuerta Sport Futbol Kluberako diru-laguntzaren oinarri arautzaileak eta emakida onestea ebatzi da.

6.- BERRESTEA, BIDEZKOA BADA, IRAILAREN 29KO 624/17 DEKRETUA; HORREN BITARTEZ, EZKURRA SAN VIATOR IKASLEEN GURASO ELKARTERAKO DIRU-LAGUNTZAREN EMAKIDA EBAZTEN DA "2017KO JARDUEREN PROGRAMA" EGITEKO.

Urriaren 16ko 3/17 Ezohiko Kontuen Batzorde Berezian, Osoko Bilkurak berrestearen aldeko txostena egin dute aho batez.

[...]

Berlaratuek aho batez adostu dute irailaren 29ko 624/17 Dekretua berrestea; horren bitartez, Ezkurra San Viator Ikasleen Guraso Elkarteko diru-laguntzaren oinarri arautzaileak eta emakida onestea ebatzi da.

7.- BERRESTEA, BIDEZKOA BADA, URRIAREN 3KO 630/17 DEKRETUA; HORREN BITARTEZ, GURE UMEAK IKASLEEN GURASO ELKARTERAKO DIRU-LAGUNTZAREN EMAKIDA EBAZTEN DA "2017KO JARDUEREN PROGRAMA" EGITEKO.

Urriaren 16ko 3/17 Ezohiko Kontuen Batzorde Berezian, Osoko Bilkurak berrestearen aldeko txostena egin dute aho batez.

[...]

Bertaratuek aho batez adostu dute urriaren 3ko 630/17 Dekretua berrestea; horren bitartez, Gure Umeak ikasleen guraso elkarterako diru-laguntzaren oinarri arautzaileak eta emakida onestea ebatzi da.

8.- BERRESTEA, BIDEZKOA BADA, URRIAREN 5KO 641/17 DEKRETUA; HORREN BITARTEZ, BURDINMENDI KIROL ETA AISIALDI ELKARTERAKO DIRU-LAGUNTZAREN EMAKIDA EBAZTEN DA "2017KO JARDUEREN PROGRAMA" EGITEKO.

Urriaren 16ko 3/17 Ezohiko Kontuen Batzorde Berezian, Osoko Bilkurak berrestearen aldeko irizpena eman dute aho batez.

Bertaratuek aho batez adostu dute urriaren 5eko 641/17 Dekretua berrestea; horren bitartez, Burdinmendi Kirol eta Aisialdiko Elkarterako diru-laguntzaren oinarri arautzaileak eta emakida onestea ebatzi da.